



EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA AZPIEGITURA SAILA  
Industria Sailburuordetza  
Energiaren, Meategien eta Industria  
Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS  
Viceconsejería de Industria  
Dirección de Energía, Minas y  
Administración Industrial



COLEGIO OFICIAL DE INGENIEROS TÉCNICOS  
INDUSTRIALES DE BIZKAIA  
ALBERTO GARCÍA LIZARANZU DEKANO JAUNA  
M<sup>a</sup> DÍAZ DE HARO KALEA 10BIS, SOLAIRUARTEA  
48013 BILBAO

**GAIA:** ERAIKUNTZA BERRIAREN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAPENA.

Dekano agurgarria,

Honen bitartez, eraikuntza berriaren eraginkortasun energetikoaren ziurtaginaren inguruan, zuen elkargokideei ondokoa gogoraraztea eskatzen dizut.

Autonomia erkidego honetan eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagina arautzen duen araudiak, gaur egun *Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtaginari eta ziurtaginaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuaren bidez*, eta honen aurretik, *Eraikinen Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriari buruzko abenduaren 9ko 226/2014 Dekretuaren bidez*, ondokoa zehazten du:

- Eraikin berrien edo haien zatien Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria bitan banatzen da, batetik, proiektuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria, egikaritze-proiektuaren barruan sartuta geratuko dena, eta bestetik, eraikin bukatuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria, Eraikinaren Liburuaren barruan sartuta geratuko dena.
- Euskadiko eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren erregistroan proiektuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria nahiz eraikin bukatuaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria inskribatu behar dira.

Gogoratu ere, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eraikina kokatzen den autonomia erkidegoko eraginkortasun energetikoaren ziurtaginaren eskudun den organoaren aurrean eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria ez aurkeztea, arau-hauste larritzat hartzen dela, 601 - 1000€ arteko isunarekin zigorgarri izanik.

Zuen ahaleginak eta lankidetzat aldeztu aurretik eskertuz, adeitasunez,

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 1ean

**ASUNTO:** CERTIFICACIÓN DE LA EFICIENCIA ENERGÉTICA EN OBRA NUEVA.

Estimado Decano,

Mediante la presente te solicito traslades a vuestros colegiados y colegiadas el siguiente recordatorio relativo a la certificación de la eficiencia energética en obra nueva.

La reglamentación que regula la certificación de la eficiencia energética de los edificios en esta comunidad autónoma, actualmente mediante el *Decreto 25/2019, de 26 de febrero, de certificación de la eficiencia energética de los edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco, su procedimiento de control y registro*, y anteriormente mediante el *Decreto 226/2014, de 9 de diciembre, de certificación de la eficiencia energética de los edificios*, establece que:

- El Certificado de Eficiencia Energética de un edificio de nueva construcción, o parte del mismo, se desdobra en el Certificado de Eficiencia Energética del proyecto que debe quedar incorporado al proyecto de ejecución y en el Certificado de Eficiencia Energética del edificio terminado que se incorporará al Libro del Edificio.
- Son objeto de inscripción en el Registro de Certificados de Eficiencia Energética del País Vasco tanto el Certificado de Eficiencia Energética del proyecto, como el de edificio terminado.

Recordar, que incumplir la obligación de presentar el certificado de eficiencia energética ante el órgano competente de la Comunidad Autónoma en materia de certificación energética de donde se ubique el edificio, para su registro, está tipificado como infracción grave, en la disposición adicional duodécima, del Real Decreto legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba la Ley del suelo y rehabilitación urbana, siendo sancionable con multas de 601 a 1000€.

Agradeciendo de antemano vuestro esfuerzo y colaboración, atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 1 de octubre de 2019


STUA./FDO.: IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA

ENERGIAREN, MEATEGIEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA  
DIRECTOR DE ENERGÍA, MINAS Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL



EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA  
DPTO. DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

URR.  
2019 OCT. 03



SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. 382909